



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

AVELLANEDA IKASTETXEA

Ikastetxearen kodea:

014761

Data:

2023(e)ko ekainaren 16(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Avellaneda Ikastetxea Sodupen (Güeñes, Bizkaia) kokatzen den eta EBI elizbarrutiko ikastetxean sarean dagoen ikastetxe kontzertatua da, hezkuntza integrala eskaintzen duen ikaskuntza-sarea, hain zuzen ere. Avellaneda Ikastetxearen kasuan, eskaintza akademikoa 0 urtetatik 18 urteraino doa, azken etapa Batxilergoa izanik.

Guztira ikastetxeak 661 ikasle ditu, eta etapaka hurrengo eran banatzen dira:

- Haur Hezkuntzako 1. zikloa: 45.
- Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 75
- Lehen Hezkuntza: 241
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH): 200
- Batxilergoa: 100

Ikasleekin batera, irakasleen klaustroa 55 pertonez dago osatua, eta gainontzeko pertsona ez-dozenteak gehiturik Avellaneda Ikastetxeak osatzen duen pertsonen multzoa eratzen da, zuzendaritza taldeak zuzendua.

Ikastetxera etortzen diren familien batez besteko maila sozio-ekonomikoa ertain-altua da, eta ikastetxeak bere ikasleen eta erabiltzaileen esku dituen baliabideak jartzen ditu.

Nortasuna

Avellaneda Ikastetxea Bilboko Elizbarrutiak sustatutako Elizbarrutiko zentruetako bat da, EBI sarearen barruan dagoena, hain zuzen ere. Ikastetxeak 0-3 urteko Haur Eskolako geletan hasten du bere hezkuntza proiektua eta Batxilergora arte luzatzen du, Haur Hezkuntzatik, Lehen Hezkuntzatik eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik igaroz, eta hau aurrera eramateko hirueletasunean oinarritzen du bere ikasketen hizkuntza-eredua, betiere euskara ardatz nagusia izanik.

Pertsonaren eta bizitzaren ikuspegi kristauan oinarrituta, Avellaneda Ikastetxeak bere hezkuntza-proposamena definitzen du, euskal kulturak inguruan duen errealitatean kokatuz eta hau garatu eta bultzatzeko ekintzak eta bestelako jarduerak bideratuz.

Avellaneda Ikastetxeak ikasleen garapen osoa bilatzen du, pertsona aske, arduratsu eta kritikoak bultzatuz eta inguruan duten gizartearen egoerarekiko hausnarketak egiteko gaitasunak garatuz. Hain zuzen ere, errespetua ardatz izanik aldaketa sozialei era egokienean aurre egitera prestatzea du helburu ikastetxeak.

Xedea

Avellaneda ikastetxea EBI sarearen barnean kokatzen den ikastetxe bat da, eta helburu nagusia ikasleen prestakuntza integralean jardutea da, gizarte eta kristau balioetan oinarrituta pertsona autonomo, kompetente eta inguruarekiko konprometituak izan daitezen.

Ikuspegia

Avellaneda Ikastetxearen ikuspegia, bertako kide guztien konpromisoaren eta parte-hartzearen bidez, honako hauek aintzatesten duten ikastetxea izatera iristea da (hezkuntza-komunitate honen barnean dauden eragile guztiak bateratzen dituztenak):

- Kalitatea giza eta kristau prestakuntzan oinarrituz.
- Aniztasunari arreta pertsonalizatuarekin erantzutea.
- Gure hizkuntzaren eta kulturaren aldeko apustua, testuinguru ireki eta pluralean.
- Etengabeko berrikuntza gure hezkuntza-proiektuan, gure ikasleen beharrei erantzuteko:
- Hirueletasuna.
- Teknologia berriak sartzea ikasgeletan.
- Proiektu pedagogikoak aplikatzea.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Azken 8 urteetan Avellaneda Ikastetxean eraldaketa digitalaren alde egindako apustuak eragin handia

izan du zentroan, azpiegitura, ekipamendu teknologiko eta zerbitzu digitaletan egin duen inbertsioan gehienbat. Era berean, eta hau guztia kontutan hartuz, ikastetxea erakunde digital ahaldu gisa definitzeko bidean aurkitzen dela esan daiteke, honen ebaluazioa positibotzat hartuz.

Jarraian ikastetxearen ezaugarri teknologiko nagusiak jasotzen dira.

Azpiegitura teknologikoak

- WiFi konexioa eta ikastetxeko espazio guztietara heltzen den sarea, eraikin nagusian ez dauden eremuak barne (besteak beste, laborategiak edo Haur Eskolako eraikina).
- Firewall bidezko sarearen segurtasun-protokoloak.

Ekipamendu teknologikoa

- Ordenagailuak idazkaritzan, administrazioan eta ikastetxeko zuzendaritzan.
- Ipad pertsonala irakasle bakoitzarentzat.
- Chromebook ordenagailuak bai irakasle zein ikasleen erabilerarako.
- Bai ordenagailu finko zein eramangarriak irakasle gelan.
- Sare bidez konektatutako inprimagailuak irakasle gelan eta idazkaritzan.
- Eskola 2.0 ordenagailuak ikasleen erabilerarako.
- 36 ordenagailu eramangarri dituen informatika gela, ikasgai desberdinak aurrera eramateko erabiltzen dena.
- Proiektoreak, bozgorailuak eta arbela digitalak ikasgela guztietan.

Zerbitzuak

- Kudeaketa- eta administrazio-plataformak: Educamos plataforma Office 365 sistemarekin, Google Suite (Google Drive, Classroom... eta bestelako zerbitzuak dituen).
- Ikaskuntza digitaleko eduki eta zerbitzu digitalen plataformak: Google Classroom, lizentzia digitalak dituzten argitaletxeen plataformak.
- Ikastetxeko Informatika eta Komunikazio Teknologiak kudeatzen dituen batzordea, egunerokotasunean egon daitezkeen arazoak konpondu eta erabiltzaileei laguntza eskaintzeko prest daudenak.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Avellaneda Ikastetxean argi dago proiektu hau ziklo berri bati ekiteko hasiera dela, eta ziklo hori inflexio-puntua izan daitekeela ikastetxeen eraldaketa digitalerako.

Eguneroko erronkei aurre egiteko teknologia erabiltzen da, ezagutzak eta trebetasunak garatzeko informaziorik eguneratuena jasotzeko, egunez egun egin beharrekoak modu errazean burutu ahal izateko eta norberaren lana inguruarekin partekatu ahal izateko tresna ezin hobea delako.

Proiektuan parte hartzearen arrazoi nagusietako bat ikastetxe mailan hobetu daitezkeen arloak badaudela da, besteak beste, irakaslearen trebetasunak garatzea edota ikasleei jabetza digitalaren garrantziaz ohartaraztea. Era berean, jada barneratuta ditugun praktikak hobetu eta optimizatzeko erabilgarria izan daitekeela uste da, horretan emandako denbora murriztuz edota kalitatea handiagotuz. Era honetan, erakunde indartsuagoa izatera heldu daiteke Avellaneda Ikastetxea.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Proiektu digitala ikastetxeak esplizituki plana aurrera ateratzeko diseinatua izan den taldeak bideratu du. Bertako kideak hurrengo zerrendan aurkezten dira:

- Haur Eskolako irakasle bat.
- Haur Hezkuntzako irakasle bat.
- Lehen Hezkuntzako bi irakasle.
- DBH eta Batxilergoko bi irakasle.

- Zuzendaritza taldeko kide bat.

Era berean, proiektuaren atal desberdinetan eta beharizanen arabera beste irakasleen laguntza ere jaso du proiektuak, amaierako emaitzarik eta borobilena lortzeko asmoz.

Ikastetxearen ohiko funtzionamenduari jarraituz periodikoki bilerak burutu dira, proiektuaren zehaztapenak definitzeko asmoz eta bertan epe laburreko helmugak ezarriz. Horrela, apurka-apurka txostena eta horren inguruko zehaztapen guztiak eraiki egin dira.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Nahiz eta Proiektu Digitala era bereiztu batean idatzita egon, Avellaneda Ikastetxean beti hartu da oinarri gisa ezin dela izan Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuarekiko loturarik gabeko ekimen bakana. Hain zuzen ere, Proiektu Digitalan garatu eta zehaztutako arlo guztiek bat egiten dute Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuarekin, hori baita Avellaneda Ikastetxeak egokien deritzona.

Ordea, Proiektu Digitalaren sortze- eta ezartze-prozesuek nahitaezko aldaketak eragin dizkiote jada finkatuta zegoen Hezkuntza Proiektuari, honen hobekuntza eta garapena ahalbidetuz, eta gaiaren inguruko *item* berriak txertatuaraziz. Hain zuzen ere, hori izan da proiektuaren ekarpen nagusieneratiko bat: Hezkuntza Proiektuaren arlo nagusienak Proiektu Digitalarekin bat egin eta entitate bakar gisa garatzen joan, nahiz eta bi dokumentutan banatuta dagoen.

Hori dela eta, azken urteetako ikastetxearen garapen estrategikoaren atal bat digitalizazio planaren barruan dagoela esan genezake, zeina era bateratu batean Urteko Planaren barruan txertatu den eta hau Hezkuntza Proiektuan jaso. Gainera, eta bilakaera aztertzeko asmoz, arlo honetako helburu espezifikoak garatu izan dira, ebaluagarriak eta egiaztagarriak direnak, eta horrekin prozesu osoaren arrakasta bermatzea izan da helburu nagusia.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Ikastetxeak DigCompOrg proiektuan ezarritako helburuak zenbateraino lortu dituen zehazteko asmoz, hezkuntza komunitatean dauden erakunde desberdinei galdera sorta bat helarazi zaie, zeinetan haien iritzia plazaratzen zuten.

Galdeketa hau *SELFIE* (*SELFIE (Self-reflection on Effective Learning by Fostering the use of Innovative Educational technologies)*) doako tresna bat da, ikastetxeei teknologia digitalak irakaskuntzan, ikaskuntzan eta ebaluazioan integratzen laguntzeko diseinatua izan dena.) tresnaren bitartez burutua izan da, hezkuntza-erakundeetan ikaskuntza aro digitalean sustatzeari buruzko Europako Batzordearen esparrua jarraitzen duena. Tresna honek ikasleek, irakasleek eta zuzendaritza taldeak beren ikastetxean teknologiak erabiltzeko moduari buruz dituzten iritzia jasotzen ditu. Horretarako, galdera laburrak erabiltzen dira, 1etik 5era bitarteko eskalarekin erantzuteko.

Behin galdeketa buruta ikastetxearen analisi orokortu bat eskuratu da, DigCompOrg esparruaren barnean dauden 8 eremuetan banatua, hurrengo eran zerrendatuak:

- A. Lidergotza.
- B. Kolaborazioa eta sare-komunikazioa.
- C. Azpiegiturak eta gailuak.
- D. Garapen profesionala.
- E. Pedagogia: laguntza eta baliabideak.
- F. Pedagogia: ikasgeletako inplementazioa.
- G. Ebaluazioa.
- H. Ikasleen konpetentzia digitalak.

Behin 8 esparruetan erakunde desberdinek izan duten balorazioa aztertuta, nabarmentzekoa da zenbait esparruetan erakunde batzuek ez dutela baloraziorik egiten, galdetegian horientzako galderarik ez egoteagatik.

Lortutako emaitzetan oinarrituz hurrengo ondorioak jaso daitezke:

1) Aztertutako *item* guztien artean azpiegitura eta ikastetxeak dituen baliabideak (C eremua) dira hoberen baloratzen direnak, baita irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako ematen den laguntza eta baliabideen eskaintza (E eremua). Nabarmentzekoa da irakasleen ikastetxeko gailuen betegarritasun maila, egiten den apustua finkoa denaren irudi argia baita.

2) Ikasleen konpetentzia digitalak ere puntuazio altua lortzen du analisian. Ordea, deigarria da ikasleek haien konpetentzia oso altua ez izatea nabaritzen dutela, gainerakoek puntuazio altuagoa ematen dietelarik.

3) Lidergotzaren inguruan nahiko parekatuta daude bai zuzendaritza taldearen zein irakaslegoaren balorazioak, eta lortutako amaierako emaitza positiboa dela ondorioztatu daiteke.

4) F esparruari erreparaturik (pedagogia: ikasgeletako inplementazioa) zuzendaritza taldeak ematen dio puntuaziorik eta bereiztuena, gainontzeko taldeen balorazioa nahiko parekatuta dagoelarik.

5) Puntuazioari dagokionez nahiko parekatuta daude D eta G eremuak (Garapen profesionala eta Ebaluazioa, hurrenez hurren), hein handi batean elkarrekin doazen eremuak direla esan dezakegularik. Hain zuzen ere, norbanakoaren garapen profesionalak honen inguruko ebaluazio bat behartzen du, etengabeko bilakaera hori lortzeko asmoz.

6) Eta, 8 eremuetatik balorazio eskasena jaso duen eremua bigarrena izan da (B eremua, alajaina), kolaborazioa eta sare-komunikazioa bateratzen dituen. Berezi ikasleen puntuazioa izan da baxuena, gainontzekoen puntuazioa oso altua izan ez bada ere.

Ondorio guzti hauetatik abiatuz eta egindako azterketak behatu ondoren, AMIA analisia burutu da, zeinetan ikastetxeak arlo desberdinetan dituen Ahuleziak, Mehatxuak, Indarrak eta Aukerak jasotzen diren.

AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

Irakasleek trebetasun digitala garatu eta hobetzeko daukaten denbora murriztua da. Hori dela eta, ezin dute klaseetan nahibeste hobekuntza sartu.

Irakasleak ez dauka trebetasun digitala hobetzeko aukerarik eskola barruan. Ez dira arloko formakuntza nahikorik eskaintzen.

Ikasleen kompetentzia digitalean, internetetik hartu den materialaren jabetza onartu eta behar bezala aipatzea ez da praktika oso hedatua.

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

Erakundeen laguntza zehaztugabea ekipoak erosteko eta ekipamendu teknologikorako bekak edo laguntzak eskuratzeko. Eten digitala izateko arriskua, heltzen ez diren laguntzen erruz.

Formazioarentzat ezartzen diren epeak oso laburrak dira, eta formakuntza faltak sistema kaltetu dezake.

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

Eduki digitalak batzen dituen unitate bat dago, non etapa, kurtso eta irakasgai guztien material digitala batzen den, irakasleen eskura.

Azpiegitura digital sendo bat dago, ikaskuntza prozesuak aurrera eramatea ahalbidetzen eta errazten duena. Internet sarbide ona, eta laguntza teknikoa.

Ikasleek mailegu gisa hartzeko gailu digitalak dituzte.

Arlo pedagogikoan, irakasleak baliabide digitalak sortzen ditu, baita ingurune birtualak ere, ikasleekin erlazionatu eta ikaskuntza prozesua aurrera eramateko.

Aukerak (kanpo-faktoreak)

IKTak ikastetxe osoko eta etapetako eredu pedagogiko berritzaileetan txertatzea, STEAM eremuaren barruan.

Ziurtaginerako oinarri ona eta garapen-esparru egokia.

Eskura dauden baliabide teknologikoen aprobetxamendu hobea eta hauekiko zaintza garatzea.

Paradigmaren guztizko aldaketa, bai maila teknologikoan zein maila metodologikoan.

Autoebaluzioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

Jada ikastetxean martxan dauden puntuak identifikatzeak horien erabileraren inguruko hausnarketa egitera behartzen du, eta hauek era optimoan erabiltzea izango da ikastetxeak bilatu behar duena, etekina maximizatu eta horrekin batera gaiaren inguruko aukera berriak sortu daitezken. Gailu digitalak erabiltzeko aukerak, euskarri digitalen inguruan egon daitekeen laguntza taldea edota materiala elkarbanatzeko dagoen erraztasuna izan daitezke lanean jarraitzeko arloaren atal esanguratsuak.

Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

Avellaneda Ikastetxean ahuleziak gehienbat denbora faltarekin erlazionatzen dira, eta horiek identifikatzean aldatu beharreko parametroa plazaratu da, zehazki, digitalizazioaren esparruari eskaini beharreko denbora. Aukera ezin hobea da ahuleziak behin betiko desagertarazteko, helburua ez baitirudi oso konplexua, eta digitalizazio planak zeresana eduki dezake helburua lortzeko orduan.

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Indarguneei indarra emanez zuzenean eta aldaketa nabariak egin barik bertan bera gelditzen dira gaur egun ikastetxeak dituen mehatxuetako batzuk, digitalizazio arloari dagokizkienak. Horrela, argi ikusten da indargunean dauden aukerei garrantzia emanez gero AMIA analisiak aldaketa nabarmena jasango duela, beti ikastetxearen onerako.

Ahuleziei eta **mehatxuei** aurre egin

Mehatxuei aurre egiteak bestelako aukerak bistaratuko ditu marko digitalaren barruan, eta horrek garapen integrala ekarriko du ikastetxera. Hain zuzen ere, denbora faltaren ondorioz hartu daitezkeen erabaki ez egokiak dira mehatxurik handienak. Hori dela eta, planaren barruan estrategia bat diseinatuko da hau erarik zuzenenean aurra eraman eta arrakasta bermatzeko.

Era berean, ezin da ahaztu guzti honek ikastetxeko berrikuntza-planarekin eta hezkuntza-eredu berriarekin bat egiteko gaitasuna izan behar duela, plan eta lerro-estrategiko guztien arteko bizikidetzat bermatu eta hezkuntza-eredu sendoago bat eraikitzeko asmoz.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua

Irakasleok Plan digitalaren diseinuan parte hartzea

Deskriptorea

Epea

LG 1.3 Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza

2024-2025

Adierazlea

Mota

Helmuga

LG 1.3 A1 Ikastetxeak bere oinarrizko dokumentazioan (Urteko Plana, IHP, ...) sartzen ditu irakasle-tald

Bai/Ez

2024-2025

LG 1.3 A2 Ikastetxearen Curriculum-Proiektuak ikasleen gaitasun digitalaren garapena zehazten du

Ehunekotan

2024-2025

LG 1.3 A3 Ikastetxeak batzorde bat eta koordinatzaile bat ditu estrategia digitala garatzeko, eta haren f

Bai/Ez

2024-2025

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

Zuzendaritza taldeak zehazten dituen eginbeharrak eta erronka berriak IKT batzordearekin partekatu, gerora irakaslegoari zabaltzeko.

Zuzendaritza taldea - IKT batzordea

2024-2025

Prozesuan (%20-39)

Zuzendaritza taldetik irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan lagunduko duten aplikazioen berri eman.

Barne komunikaziorako tresnak.

Zuzendaritza taldea - irakaslegoa

2024-2025

Detektatua

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Ikastetxeko gailu digitalen erabilera sendotu, gailuek eduki ditzaten arriskuak nabarmenduz eta segurtasunari garrantzia emanez

Deskriptorea	Epea	
II 1.2 Lehenengo mailan jartzen dira online inguruneetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsua	2024-2025	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.2 A2 Lan-talde bat sortu du eta beharrezkoak diren saioak definitu ditu datuen babesari, identitate	Bai/Ez	2024-2025
II 1.2 A3 Unitate didaktikoak diseinatu/egokitu ditu, datuak babesteari, identitate digitalari, ziberseguri	Ehunekotan	2024-2025

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Hilean zehar aplikazio desberdinen inguruko formakuntzak eskaini, hauen ezagutza ziurtatzeko.	Aplikazio/programa informatikoak	IKT batzordea	2024-2025	Prozesuan (%40-59)
Aplikazio desberdinen inguruan etapan arteko balorazioak burutu.	Aplikazio/programa informatikoak	Irakasleoa	2024-2025	Detektatua
Ikastetxe eta gurasoen arteko komunikazioa hobetu horretarako teknologiak eskaintzen dituen erraztasunak erabiliz.	Aplikazio/programa informatikoak	IKT batzordea - Irakasleoa	2023-2024	Prozesuan (%60-79)

GP Garapen profesionala

Helburua

Irakaslegoaren gutxiengo maila teknologikoa ziurtatzea

Deskriptorea	Epea	
GP 1.2 EGPa maila guztietako pertsonalarentzat eskaintzen da	2024-2025	
Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.2 A1 Ikastetxeak hezkuntza-komunitatearen eskura jarri ditu zibersegurtasunari, identitate digital	Bai/Ez	2024-2025

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Materialen erabilera-lizentziak ezagutu eta ahal den neurrian Copyleft duten materialak erabiltzea. Ikasleen artean lizentzia desberdinak azaldu eta horien erabilera ziurtatu.		IKT batzordea - Zuzendaritza taldea	2024-2025	Detektatua
Copyright duten materialak erabiliz gero behar bezala erreferentziatzen irakastea/ ikastea.		IKT batzordea - Irakasleak	2023-2024	Prozesuan (%40-59)

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua

Ebaluazioari lotutako praktikak esparru digitalera egokitu, prozesu osoa aurrera eramateko teknologia egokiak erabiliz

Deskriptorea	Epea	
EJ 1.1 Ebaluazio formatiboaren helmena hedatzen da	2024-2025	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.1 A1 Ikasgaien % ... tan errubrikak erabiltzen dira irakasteko eta ikasteko prozesuetan, ikasleek ber	Ehunekotan	2023-2024
EJ 1.1 A2 Ikasgaien % ... tan, ikasleek produktu digitalen ebidentzien portafolioa erabiltzen dute irakats	Ehunekotan	2024-2025
EJ 1.1 A3 Ikasgaien % ... tan ikasleek lineako probako teknologia erabiltzen dituzte, berehalako itzuleri	Ehunekotan	2023-2024

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Teknologia eskaintzen dituen baliabideak erabiliz ikasleen atzeraelikadura (feedback) burutzeko gailu digitalen erabilera irakasle-taldearen artean sustatzea.	Aplikazio/programa informatikoak	IKT batzordea - Irakasletoa	2023-2024	Prozesuan (%60-79)
Ikasleekin batera aurrera eramandako proba eta ebaluazio-jardueren inguruko hausnarketak bideratzea, horretarako teknologia eta aplikazio desberdinak erabiliz.	Aplikazio/programa informatikoak	Irakasletoa	2024-2025	Hasita (%1-19)

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

Material berria sortzeko orduan iturri desberdinen jabetzaren inguruan hausnartu eta hauek aztertzea

Deskriptorea	Epea	
EC 1.3 Jabetza intelektualeko eta copyright eskubideak errespetatzen dira	2024-2025	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 1.3 A1 Departamentuak/mailek/zikloak lineako ikaskuntzaren ingurune digitalean eskaintzen diren (Ehunekotan	2024-2025

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
DBHn jardueren ebaluazioa drive-k edo classroom-ek eskaintzen dituen erremintak erabiliz burutzea, iruzkinak itzuli, puntuazioak gorde...	Aplikazio/programa informatikoak	Irakasleak	2024-2025	Prozesuan (%40-59)
DBH 3. eta 4. mailan iPadak kontrolatzeko software bat bilatu, erabilera egokia sendotu eta bermatzeko.	Aplikazio/programa informatikoak	IKT batzordea - Zuzendaritza taldea	2023-2024	Detektatua

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua

Bai barne zein kanpo komunikazioa zabaldu, egiten diren jarduera guztiak baloratuak izan daitezzen

Deskriptorea	Epea	
EN 1.4 Ezagutza trukatzeko jarduera eta ekitaldietan parte hartzea sustatzen da	2024-2025	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 1.4 A1 Ikastetxeak eremu digitalean esperientziak trukatzeko jardunaldi batzuk planifikatu ditu, ingi	Bai/Ez	2024-2025

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Etapa guztien arteko komunikazioa sustatu, bakoitzean egiten denaz gainerako irakasleak ohartaraziz.	Barne komunikaziorako tresnak	Irakaslegoa	2024-2025	Prozesuan (%60-79)
Baliabide teknologikoak eguneratzen eta berritzen direnean denak jakinaren gainean daudela ziurtatu, horiek ondo aprobetxatzen direla bermatuz.	Barne komunikaziorako tresnak	IKT batzordea - Irakaslegoa	2024-2025	Prozesuan (%40-59)

AZ Azpiegiturak

Helburua

Ikastetxean dauden baliabide guztiak era eraginkorren erabili egiten dira, eta hauek araututa daude.

Deskriptorea	Epea	
AZ 1.1 Ikaskuntza-ingurune fisikoek optimizatu egiten dituzte aro digitaleko ikaskuntzaren aukerak		
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 1.1 A1 Ikastetxeak dokumentu bat edo atal bat du ikastetxeko espazioak, ekipamendua eta baliabid	Bai/Ez	2023-2024
AZ 1.1 A2 Irakasleen harrera-dokumentuan, gorabeherak eta matxurak komunikatzeko eta kudeatzeko	Bai/Ez	2023-2024

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikastetxean dauden baliabide digitalak ikasgela guztiek erabil daitezkeela ziurtatu, bereziki Lehen Hezkuntzan.	Ordenagailu eramangarriak - Chromebook	IKT batzordea - Irakasletoa	2023-2024	Prozesuan (%80-99)
Etapas desberdinen artean informatika gelaren erabilera handiagotu.	Informatika gela	Irakasletoa	2023-2024	Prozesuan (%60-79)

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

Praktika digitalak aurrera eramatean lortzen diren ondorioak batu eta hauen inguruko hausnarketa bideratu.

Deskriptorea	Epea	
IB 1.1 Egiten diren ekintzen analisia hezkuntza komunitatearen artean bideratzen da.	2024-2025	
Adierazlea	Mota	Helmuga
IB 1.1 A1 Erakunde interesatu guztiek hausnarketa aurrera eramateko aukera daukate.	Bai/Ez	2023-2024
IB 1.1 A2 Ateratzen diren ondorioak pertsona guztien artean partekatzen dira eta hauek hobetzea dute.	Bai/Ez	2024-2025

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Erakunde desberdinen artean eztabaida foroak sortuko dira, ondorioak lortzea ahalbidetuko dituztenak.		Irakasleoa - Zuzendaritza taldea	2024-2025	Detektatua
Zuzendaritza-taldeak ondoriak jaso egingo ditu eta hauen analisi osotua burutuko du.	Gailu digitalak. Aplikazio informatikoak	Zuzendaritza taldea	2024-2025	Hasita (%1-19)
Hausnarketa burutzean pertsonak horren inguruko informazioa jasoko dute, baita egin daitezkeen aldaketan iradokizunak ere.		Irakasleoa	2024-2025	Detektatua



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	2023-2024	Plan digitalaren diseinuan parte hartzea	Plan digitalaren atal bakoitza burutzean betegarritasuna aztertu.	IPD batzordeko zuzendariak (IKT arduraduna)	Prozesuan (%60-79)
II	2024-2025	Ikastetxeko gailu digitalen erabilera sendotu, gailuek eduki ditzaten arriskuak nabarmenduz eta segurtasunari garrantzia emanez	Aurrera eramaten diren jarduerak desberdinetan balorazio-galdetegiak bete eta ondorioak atera.	Zuzendaritza taldea	Detektatua
GP	2024-2025	Irakaslearen gutxiengo maila teknologikoa ziurtatzea	Digitalizazio esparruan finkatzen diren erronkak nola burutzen diren aztertu, lortutako emaitzei erreparatuz	Zuzendaritza taldeak eta IKT arduradunak	Prozesuan (%80-99)
EJ	2023-2024	Ebaluazioari lotutako praktikak esparru digitalera egokitu, prozesu osoa aurrera eramateko teknologia egokiak erabiliz	Irakasleak periodikoki zuzendaritza-taldeak antolatutako azterketak izango ditu, lana ebaluatu eta ondorioak lortzea bilatuko dutenak.	Zuzendaritza taldea	Hasita (%1-19)
EC	2023-2024	Material berria sortzeko orduan iturri desberdinen jabetzaren inguruan hausnartu eta hauek aztertzea	Sortzen diren material berriak aztertu eta jabetzaren inguruko zehaztapenak betetzen direla egiaztatuz.	Zuzendaritza taldea eta irakasleak	Hasita (%1-19)
EN	2024-2025	Bai barne zein kanpo komunikazioa zabaldu, egiten diren jarduerak guztiak baloratuak izan daitezzen	Ikastetxean parte hartzen duten erakunde desberdinei galdetegiak helaraziz.	Zuzendaritza taldea	Prozesuan (%20-39)
AZ	2024-2025	Ikastetxean dauden baliabide guztiak era eraginkorrean erabili egiten dira, eta hauek araututa daude.	Praktika onak batzen dituen dokumentuan betegarritasun maila aztertu.	IKT arduradunak eta zuzendaritza taldeak.	Prozesuan (%40-59)
IB	2024-2025	Praktika digitalak aurrera eramatean lortzen diren ondorioak batu eta hauen inguruko hausnarketa bideratu.	Mintegiak antolatutako dira ikastetxeko erakunde desberdinen artean eta hausnarketa bateratua bideratuko da.		